



GARRAIO PUBLIKOAN

NOLA JOKATU
DEMENTZIA DUEN
PERTSONA BATEKIN



POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL



Desorientazioa sintoma psikologiko-konduktuala da, gaixotasunaren **lehen fasetik** agertzen dena, **denbora-desorientazioa**rekin (eguna, urteko hilabetea) **eta espazio-desorientazioa**rekin, gutxi ezagutzen diren lekuetan. **Gaixotasunak aurrera egin ahala**, denbora- eta espazio-desorientazioa askoz **larriagoa** da, eta pertsona ingurune hurbilago eta ezagunagoetan gal daiteke, hala nola auzoan bertan. Eta **gaixotasunaren faserik larrienean, espazio- eta denbora-desorientazioa erabatekoa da**, eta beste pertsona batzuen etengabeko laguntza behar da.

Zer egoera sor daitezke?

- Ez dakite nola ordaindu behar den garraioa edo ordaindu behar den ere.
- Garraio publikoaren barruan desorientatu daitezke, ez dakitelako zergatik dauden hor edo ez dutelako ingurunea ezagutzen (kaleak, geltokiak...)
- Zaila egiten zaie jakitea edo gogoratzea zer geltokitan jaitsi behar diren.
- Garraio bidearen instalazioetan desorientatu daitezke (autobus-geltokiko markesinak, metroko edo treneko nasak...), ez dakitela non dauden edo nori galdetu.



Nola joka dezakegu?

- Norbaitek garraiobidera nola igo ez dakiela ikusten baduzu (txartela erosteko edo txartela erabiltzeko arazoak), hurbil zaitetz atseginez eta galdetu laguntza behar duen. Ziurtatu nora doan badakiela.
- Norbait garraiotik jaisten ez dela ikusten baduzu (ibilbidea amaitutakoan). Galdetu laguntza behar duen. Pertsona agian desorientatuta dagoela ikusten baduzu, jakinarazi garraio-arduradunari edo segurtasun-langileei.




- Hurbildu desorientatuta dagoen pertsonarengana modu lasai eta ez tian.
- Aurkeztu zeure burua gizabidez eta galdetu zerbaitetan lagundu ahal diozun.
- Baliteke ez gogoratzea non bizi den eta ez jakitea familiarekin harremanetan jartzen. Kendu garrantzia horri, gehiago kezka ez dadin. Erakutsi zure babesa.
- Hitz egin iezaiozu ezti eta lasai. Egokitu diskurtsoa desorientatutako pertsonarengan. Ulertzen ez dizula ikusten baduzu, erabili esaldi laburragoak eta sinpleagoak.
- Ez hasi liskarrean, eztabaidatzeak ez baitu lagunduko arazoa konpontzen. Ulertzen ez dizula edo urduri dagoela ikusten baduzu, hobe da poliziari deitzea, lagun diezaion.
- Batzuetan, desorientazioak eta urduritasunak berak agresibitate pixka bat eragin dezakete; halakoetan, saiatu lasai egoten, utzi barrena hustu dezala eta saiatu entretenitzen, gaia aldatuz adibidez: non jaiotzen galdetu, gauza alairen bat esan...
- Pertsona desorientatuta badago, jakinarazi garraio-arduradunari edo segurtasun-langileei.



Deitu 112ra.

Baliteke familiak salaketa bat jarri izana Segurtasun Indar eta Kidegoetan, eta, hala bada, errazagoa izango da familia aurkitzea.



Informazio gehiago:
www.ceafa.es/entornos-amigables

INGURUNE LAGUNKOI
ETA SOLIDARIOAK
DEMENTZIEKIN



**CONFEDERACIÓN
ESPAÑOLA DE
ALZHEIMER**